



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA

2.014KO ABUZTUAK 7

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA**  
**ZINEGOTZIAK:**  
**Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.  
Leire Beristain Mendizabal.  
Luis Berrondo Lanceta.

**Bertaratu gabeak:**

Harkaitz Arruti Eizagirre.  
Oihane Arzalluz Beobide.  
Iñaki Irulegi Apalantza

**IDAZKARIA:**

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko abuztuaren zazpiko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:**  
**2014KO EKAINAREN 5 ETA UZTAILAREN 3KO AKTEN ONARPENAK,**  
**BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko ekainaren 5 eta uztailaren 3ko aktak onartzen diren galdetzen du eta aho batez onartzen dira.

**BIGARREN PUNTUA:**  
**ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA**

**HIRUGARREN PUNTUA:  
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko ekainaren 24tik (85/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko uztailaren 28ra (101/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**LAUGARREN PUNTUA:  
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Alkateak aipatzen du haurten ere lehengo urtean bezela haurreskolako bileteak atera dituztela eta salgai daudela.

2.- Luis Berrondo zinegotziak galdetzen du ea zabor kontenedoreekin zer gertatu den.

Alkateak erantzuten dio, errore bat izan dala eta kontenedoreak berriro beraien lekuan jarri dituztela.

Jokin Uzkudun zinegotziak galdetzen du ea txabolak noiz jarri behar dituzten.

Alkateak erantzuten dio solera Jose Manuel Ezamak egin ondoren, txabola segituan jarriko dala martxan.

3.- Alkateak jakinerazten du Granadako bidea martxan dala eta obra Excavaciones Lagunak-ek egingo duela.

4.- Alkateak dio Zelatungo kandadua harrapatu egin zutela eta giltza txabolazaleei eta terrenoak dituzten partikular guztiei banatu behar zaiela.

5.- Alkateak aipatzen du Zurruntzolako bideko estolderi sarrera garbitu egin behar zala eta lan hau Excavaciones Egurkik egin duela.

6.- Rafael Aranburukin hitzegin ondoren, Alkateak aipatzen du inbertsio planeko obra berehala hasiko dugula, Rafaellek adierazi bezela, harriak gora igotzeko baldintzarekin.

7.- Alkateak dio mediku etxeko tximinia garbitu dutela eta teilatua erreta dagoela aipatu dutela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bat ordu eta berrogei minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

